PLT-C-2025-0026
MAS/vov

PRESKRIPZIO TEKNIKOEN AGIRIA

GIPUZKOAKO LURRALDE HISTORIKOKO ERREPIDEETAKO NEGUKO BIDEZAINTZARAKO URGARRIEN HORNIDURA KONTRATATZEKO

6-SM-81/2025

ACTA08510087f-5db3-4995-805c-065d104488b0

PLT-C-2025-0026
MAS/vov

1. PRESKRIPZIO OROKORRAK

Baldintza agiri honetan, kontratu honetan hornitu behar diren materialak adierazten dira, bete behar dituzten ezaugarri teknikoak zerrendatzen dira eta horiek onartzeko oinarri izango diren baldintza eta irizpide espezifikoak definitzen dira. Halaber, hornidurak egingo diren biltegiratze-puntuak eta horiek eskura jartzeko epeak zerrendatzen dira.

2. KONTRATUAREN OBJEKTUA

Kontratuaren objektua da Gipuzkoako Lurralde Historikoko foru sareko errepideetan neguko bidezaintzako lanak gauzatzeko beharrezkoak diren urgarriez hornitzea.

Hornigai nagusia gatzarria da (NaCl), zeina kamioira igoko duten harrobian eta Gipuzkoako errepide sare osoan zehar banatuta dauden biltegiratzeko instalazio osagarrietara eramango den (urgarrientzako silo eta biltegiak).

Sodio klorurozko gatzunaren hornidura ere barne hartzen da; alabaina, kasu honetan, une bakoitzean hautatutako biltegiratze instalazioetako tangara eramango da hornigaia.

Gaur egun, gatzuna egiteko instalazio bat dago Tolosako basean. Hori dela eta, hornidura horren xedea zabaldu egin da, eta fintze-maila handiagoa duen beste gatz mota bat sartu da, instalazio horretan lan egiteko egokia dena.

Azkenik, kontratu honetan, kaltzio kloruroa ere bilduko da, malutatan; izan ere, urgarri hau noizbehinka erabiltzen da, baina ezinbestekoa da tenperatura oso baxuetan. Hornikuntza, ahal dela, zakutan egingo da, eta une bakoitzean hautatutako biltegiratze instalazioetan utziko da.

Hornikuntza guztiak Gipuzkoan dauden biltegiratze instalazioetan egingo dira.

3. KONTRATU MOTA: Hornidura.

4. IZENBURUA: GIPUZKOAKO LURRALDE HISTORIKOKO ERREPIDEETAKO NEGUKO BIDEZAINTZARAKO URGARRIEN HORNIDURA

Kodea: 6-SM-81/2025.

5. HORNIDURAREN DESKRIBAPENA

MATERIALEN ESPEZIFIKAZIOAK

Gatzarria (NaCl)

Hornigai nagusia gatzarria da, hots, jatorri mineraleko sodio kloruroa (Na Cl), kaltzio kloruro eta magnesio kloruro kantitate txiki batekin nahastua. Hiru kloruroen nahasketaren gutxieneko aberastasuna pisuaren % 90ekoa izango da.

Gainera, hornigaia hurrengo atalean adierazitako tokietako batean biltzeko unean

ACTA08510087f-5db3-4995-805c-065d104488b0

bertan, neurketak egingo dira, eta espezifikazio tekniko hauek bete beharko ditu:

Produktu aktiboa:	> % 90
PH	< 10
Ur edukia:	< % 0,50
Sulfatoak:	< % 3,00
Granulometria:	0,32 eta 5 mm artekoa, erabilera honetan sartzen den kurba granulometrikoarekin:

UNE BAHEA	IREKIDURA (mm)	IGAROTZEN DEN %
5. zk.	**4,75**	**85-100**
2.5. zk.	**2,38**	**30-60**
0.32. zk.	**0,297**	**0-5**

Materiala garbi, solte eta elementu arrotzik gabe hornituko da. 20 ºC +/- 2 ºC tenperaturan uretan disolbatzen ez den materiala pisuaren % 10 izango da, gehienez ere.

Trinkotu ez dadin, ferrozianuro bidez tratatuko da, gutxienez 20 ppm-ko proportzioan.

Sodio klorurozko gatzuna (NaCl)

Errepideetan urgarri modura erabiltzeko nahitaez bete behar dituen parametro fisiko eta kimiko garrantzitsuenak:

- Ur disoluzio koloregabea.
- Dentsitatea 1,202 g/cc 25 ºC-ra
- Kontzentrazioa 23-24 gradu Beaume.
- Sodio kloruroa 300 eta 320 gr/l artean
- Kaltzio sulfatoa 0 eta 15 gr/l artean
- Sodio sulfatoa 0 eta 20 gr/l artean
- Potasio kloruroa 0 eta 10 gr/l artean
- Artsenikoa < 0,05 mg/kg
- Kadmioa < 0,5 mg/kg
- Kobrea < 0,05 mg/kg
- Merkurioa < 0,05 mg/kg
- Beruna < 0,05 mg/kg

ACTA08510087f-5db3-4995-805c-065d104488b0

- pH 6,5 eta 7,5 artean

Gatzuna egiteko gatza

Hornitu beharreko material nagusia sodio kloruroa (Na Cl) da, gatzun kontzentratuaren kristalizazioaren eta lurrunketa naturalaren bidez lortutakoa, eta gutxienez pisuaren % 98ko aberastasuna duena.

Gainera, jarraian zehazten diren berezitasun teknikoak izan behar ditu, ondorengo atalean zehaztutako tokietan jasotzen den unean neurtuta:

Produktu aktiboa:	> % 98
PH	< 10
Ur-edukia:	< % 0,50
Sulfatoak:	< % 3,00
Granulometria:	0,32 eta 5 mm artean

Materiala garbi, solte eta elementu arrotzik gabe eman beharko da. Uretan 20 ºC +/- 2 ºC-ko tenperaturan disolbatzen ez den materia, gehienez ere, pisuaren % 2 izango da.

Materiala trinkotu ez dadin, ferrozianuro bidez tratatuta egongo da, gutxienez 20 ppm-eko proportzioan.

Kaltzio kloruroa (CaCl)

Malutetan hornitzen den produktu zuri bat da eta pisuaren % 80ko aberastasuna du kaltzio kloruroan. Parametro fisiko eta kimiko garrantzitsu hauek beteko ditu:

- Formula kimikoa $CaCl_2 . 2H_2O$
- Itxurazko dentsitatea 0,800 g/cc
- Kaltzio kloruroa pisuaren > 80 %
- Sodio kloruroa pisuaren > 6 %
- Magnesio kloruroa pisuaren > 0,5 %
- Granulometria: 0,63 eta 10 mm artekoa, erabilera honetan sartzen den kurba granulometrikoarekin:

UNE BAHEA	IREKIDURA (mm)	IGAROTZEN DEN %
10. zk.	**9,52**	**100**
5. zk.	**4,75**	**80-100**
0.63. zk.	**0,59**	**0-5**

ACTA0851087f-5db3-4995-805c-065d104488b0

6. KARGATZEKO, GARRAIATZEKO ETA DESKARGATZEKO BALDINTZAK

Biltegiratzeko eremuaren eta hornitzeko orduan Gipuzkoako Foru Aldundiak erabilgarri dituen garraiobideen arabera, modu hauetako batean kargatu, garraiatu eta deskargatu ahalko da:

a) Gipuzkoako Foru Aldundiak garraiorako jarritako kamioian soltean kargatzea; hain zuzen ere, Aldundia arduratuko da deskargatzeaz. Kamioiek gailuren bat erabiliko dute euri urak produktua busti ez dezan.
b) Kontratuaren adjudikaziodunak jarritako kamioian soltean kargatzea eta garraiatzea, eta helmugako biltegiratze instalazio osagarrian deskargatzea. Kamioiek gailuren bat erabiliko dute euri urak produktua busti ez dezan.
c) Kontratuaren adjudikaziodunak jarritako zisterna kamioian kargatzea, zisterna kamioian garraiatzea eta deskarga pneumatikoa egitea zisternatik, neguko bidezaintzarako helmugan dagoen instalazioan (gatz siloak edo gatzun tangak).

d) Karga 1.000 kg-ko *big-bag* zakuetan edo 25 kg-ko zakuetan egitea, kontratuaren adjudikaziodunak jarritako kamioian garraiatzea eta kontratuaren adjudikaziodunak eskuz deskargatzea, helmugako biltegiratze instalazio osagarrian.

Deskarga jarraian deskribatutako neguko bidezaintzako instalazioetan egingo da:

S-1. Alai siloa, 100 t, N-I errepidean, 406 KP
S-2. Gatzaren bihurguneko siloa, 100 t, N-I errepidean, 407 KP
S-3. Urtsuaran 1 siloa, 100 t, N-I errepidean, 409 KP
S-4. Urtsuaran 2 siloa, 100 t, N-I errepidean, 409 KP
S-6. Legorreta siloa, 100 t, GI-2131 errepidean, 5+660 KP
S-7. Belabieta 1 siloa, 60 t, A-15 errepidean, 147 KP
S-8. Belabieta 2 siloa, 60 t, A-15 errepidean, 147 KP
S-9. Belabieta 3 siloa, 100 t, A-15 errepidean, 147 KP
S-10 Andoain siloa, 100 t, N-I errepidean, 445 KP (ez da erabiltzen)
S-11. Zaldunborta siloa,100 t, GI-636 errepidean, 9 KP
S-12. Berastegi siloa,100 t, A-15 errepidean,141+800 KP

D-1. Beasain tanga, 5.000 t, N-I errepidean, 419 KP
D-2. Andoain tanga, 1.000 t, N-I errepidean, 445 KP

S-20. Arlaban siloa, 100 t, GI-627 errepidean, 18+050 KP
S-21. Bergara siloa, 100 t, GI-627 errepidean, 40+500 KP
S-22. Azkoitia 1 siloa, 100 t, GI-631 errepidean, 19+850 KP
S-23. Azkoitia 2 siloa, 100 t, GI-631 errepidean, 19+850 KP
S-24. Azpeitia siloa, 60 t, GI-2634 errepidean, 23+600 KP
S-25. Legazpi 1 siloa, 60 t, GI-2630 errepidean, 1+500 KP

ACTA08510087f-5db3-4995-805c-065d104488b0

S-26. Legazpi 2 siloa, 100 t, GI-2630 errepidean, 1+500 KP
S-29. Arlaban siloa, 100 t, GI-627 errepidean, 21+700 KP
S-30. Deskarga 1 siloa, 100 t, GI-2632 errepidean, 16+250 KP
S-31. Deskarga 2 siloa, 100 t, GI-2632 errepidean, 16+250 KP
S-32. Kanpazar 1 siloa, 100 t, N-636 errepidean, 33+390 KP
S-33. Kanpazar 2 siloa, 100 t, N-636 errepidean, 33+390 KP

D-6 San Prudentzio siloa, 850 t, GI-627 errepidean, 40+500 KP

7. DOKUMENTAZIO TEKNIKOA

Hornidura hasi aurretik, adjudikaziodunak dokumentazio tekniko hau aurkeztu beharko du:

a) Hornituko den produktuaren fitxa teknikoa.

b) Hornituko den produktuak eskatzen diren espezifikazio guztiak eta fitxa teknikoan tipifikatutako ezaugarriak betetzen dituela egiaztatzen duen ziurtagiria.

8. ESKARIAK ETA ENTREGATZEKO EPEA:

Hornidura-eskaerak posta elektronikoz egingo dituzte Gipuzkoako Foru Aldundiak urgarriak kudeatzeko izendatutako langileek. Adjudikaziodunak bere eskaintzan zehaztuko du eskabideak zein posta-helbidetara bidaliko diren.

Helmuga arteko garraioa barne hartzen duten horniduren kasuan, adjudikaziodunak HIRU (3) EGUNeko epean jarri beharko du eskatutako produktua, egindako eskaera formaletik zenbatzen hasita.

9. NEURTZEKO MODUA ETA ORDAINKETA

Hornitutako urgarri kopurua tonatan neurtuko da, garraioa egiten duten kamioi bakoitzaren pisaketen albaran eta tiketetan oinarrituta, eta horien kopia bat entregatu zaio produktua hartzen duen Artapeneko Zerbitzuko langileari. Foru Aldundi honek Albaranak eta tiketak egiaztatu ahalko ditu baskula kalibratu batean.

Horniduraren kontratuak prezio unitarioak izango ditu, eta prezio bat ezarriko da hornitutako produktuen eta kargatzeko, garraiatzeko eta deskargatzeko modalitateen arabera; modalitateok Preskripzio Teknikoen Agiri honen I. Eranskinean daude jasota. Prezio unitario bakoitzeko aurreikusitako hornidura-kantitateen neurketa orientagarri bat egin da, zeinak lizitazioaren tasa izango den zenbateko orokorra ezartzen duen. Prezio unitarioak eta zenbatetsitako neurketa ere Preskripzio Teknikoen Agiri honen I. Eranskinean daude jasota.

Hilero, Administrazioak zerrenda baloratua idatziko du hornitutako produktuen

ACTA08510087f-5db3-4995-805c-065d104488b0

kantitateari buruz, jasotako albaranei jarraikiz, eta horretan oinarrituko da adjudikaziodunari egingo zaion hurrengo ordainketa.

10. AURREKONTUA

Agiri tekniko honen gehienezko aurrekontua **HIRUREHUN ETA HEMERETZI MILA EHUN ETA BERROGEITA BEDERATZI EURO ETA HIRUROGEI ZENTIMOKOA (319.149,60 euro)** izango da, % 21eko BEZa barne, kontratuaren bi urterako.

11. KONTRATUAREN HASIERA ETA INDARRALDIA

Kontratu hau formalizatu eta hurrengo egunean hasiko da eta **BI (2) URTEKO** indarraldia izango du. Kontratu hau beste bi urtez luzatzeko aukera aurreikusten da.

Donostia, 2025eko urria

HERRI LANETAKO EMT

ARTAPENEKO ETA SISTEMA ADIMENDUNETAKO ZERBITZUKO BURUA

Sin.: Miguel Angel Santos

Sin.: Iñigo Zuiria

ACTA0851087f-5db3-4995-805c-065d104488b0

PLT-C-2025-0026
MAS/vov

I. ERANSKINA

PREZIO UNITARIOAK (BEZik gabe)

S.1	**Gatz tona** bat, neguko bidezaintzarako urgarri moduan, **harrobian soltean** hornitua, baita garraiorako kargatzea eta deskargatzea ere, Gipuzkoako Foru Aldundiak jarritako baliabideekin.	**40,95 €**
S.2	**Gatz tona** bat, neguko bidezaintzarako urgarri moduan, soltean hornitua, baita kargatzea, garraiatzea eta **helmugan** deskargatzea barne. (Gipuzkoako Lurralde Historikoan).	**57,75 €**
S.3	**Gatz tona** bat, neguko bidezaintzarako urgarri moduan, **zisternan** hornitua, baita kargatzea, garraiatzea eta **helmugan** deskargatzea ere (Gipuzkoako Lurralde Historikoan).	**68,25 €**
S.4	**Gatz tona** bat, neguko bidezaintzarako urgarri moduan, **1.000 kg-ko big-bag zakuetan** hornitua, baita kargatzea, garraiatzea eta **helmugan** deskargatzea ere (Gipuzkoa Lurralde Historikoan).	**75,60 €**
S.5	**Gatz tona** bat, neguko bidezaintzarako urgarri moduan, **25 kg-ko zakuetan** hornitua, baita kargatzea, garraiatzea eta **helmugan** deskargatzea ere (Gipuzkoa Lurralde Historikoan).	**90,30 €**
S.6	**Gatz tona Sodio kloruro gatzuna egiteko**, 1.200 kg-ko big-bagean hornitua, eta kargatzea, garraiatzea eta **helmugan** deskargatzea barne (Gipuzkoako Lurralde Historikoa).	**84,00 €**
S.7	**Sodio klorurozko gatzun tona** bat, litroko 300 g-ko kontzentrazioarekin (24º Baumeren baliokidea), 25 Tm-ko zisterna batean hornitua, baita kargatzea, garraiatzea eta **helmugan** deskargatzea ere (Gipuzkoa Lurralde Historikoan).	**39,90**
S.8	**Kaltzio klorurozko tona** bat, malutatan, errepideetako izotza urtzeko produktu modura, 25 kg-ko zakutan hornitua, baita kargatzea, garraiatzea eta **helmugan** deskargatzea ere (Gipuzkoa Lurralde Historikoan).	**651,00 €**

ACTA08510087f-5db3-4995-805c-065d104488b0

PLT-C-2025-0026
MAS/vov

AURREKONTUA (BI URTE)

Kodea	Kantitatea	Kontzeptua	Prezioa	Zenbatekoa
S.1	**200,000**	**Gatz tona**, neguko bidezaintzarako urgarri moduan, **harrobian soltean** hornitua, baita garraiatzeko karga eta deskarga ere, Gipuzkoako Foru Aldundiak jarritako baliabideekin.	**40,95 €**	**8.190,00 €**
S.2	**400,000**	**Gatz tona**, neguko bidezaintzarako urgarri moduan, **soltean** hornitua, baita kargatzea, garraiatzea eta **helmugan** deskargatzea barne (Gipuzkoa Lurralde Historikoan).	**57,75 €**	**23.100,00 €**
S.3	**2.600,000**	**Gatz tona**, neguko bidegintzarako urgarri moduan, **zisternan** hornitua, baita kargatzea, garraiatzea eta **helmugan** deskargatzea ere (Gipuzkoako Lurralde Historikoan).	**68,25 €**	**177.450,00 €**
S.4	**100,000**	**Gatz tona**, neguko bidezaintzarako urgarri moduan, **1.000 kg-ko big-bag zakuetan** hornitua, baita kargatzea, garraiatzea eta **helmugan** deskargatzea ere (Gipuzkoa Lurralde Historikoan).	**75,60 €**	**7.560,00 €**
S.5	**100,000**	**Gatz tona**, neguko bidegintzarako urgarri moduan, **25 kg-ko zakuetan** hornitua, baita kargatzea, garraiatzea eta **helmugan** deskargatzea ere (Gipuzkoa Lurralde Historikoan).	**90,30 €**	**9.030,00 €**
S.6	**100,000**	**Gatz tona Sodio kloruro gatzuna egiteko,** 1.200 kg-ko big-bagean hornitua, eta kargatzea, garraiatzea eta **helmugan** deskargatzea barne (Gipuzkoako Lurralde Historikoa).	**84,00 €**	**8.400,00 €**
S.7	**100,000**	**Sodio klorurozko gatzun tona**, litroko 300 gr-ko kontzentrazioarekin (24º Baumeren baliokidea), 25 Tm-ko zisterna batean hornitua, baita kargatzea, garraiatzea eta helmugan deskargatzea ere (Gipuzkoa Lurralde Historikoan).	**39,90 €**	**3.990,00 €**
S.8	**40,000**	**Kaltzio klorurozko tona**, malutetan, errepideetako izotza urtzeko produktu modura, zakutan hornitua, baita kargatzea, garraiatzea eta **helmugan** deskargatzea ere (Gipuzkoa Lurralde Historikoan).	**651,00 €**	**26.040,00 €**
		BATURA		**263.760,00 €**
		BEZ % 21		**55.389,60 €**
		GUZTIRA (BI URTE)		**319.149,60 €**

EKS | CSV: ACTA0851087f-5db3-4995-805c-065d104488b0
Egiaztatu dokumentu honen osotasuna eta sinadura hurrengo URL edo QR kodean sartuz: https://egoitza.gipuzkoa.eus/eks
Compruebe la integridad y firma de este documento, accediendo a la siguiente URL o código QR: https://egoitza.gipuzkoa.eus/csv

Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

Titulua / Título:	PLT-C-2025-0026 Pliego Euskara.pdf

Sinatzailea 1 / Firmante 1:
SANTOS BURGOS, Miguel Angel - Técnico Medio de Obras Públicas
Data / Fecha: 2025/10/30 10:26:52

Sinatzailea 2 / Firmante 2:
ZUFIRIA ZATARAIN, Iñigo - JEFE DE SERVICIO DE CONSERVACION Y SISTEMAS INTELIGENTES
Data / Fecha: 2025/10/30 11:01:42